




Hoteletako gualdiek gora egin dute berriro

Hoteletan igarotako gualdiak
Urte bakoitzeko apirila. Milakoak




Iturria: Eustat.

EAEko hotel establezimenduek 600.000 gualdi baino gehiago izan zituzten apirilean. Serie historiko osoan ez zen inoiz hain erregistro handirik lortu apiril batean. Zehazki, gualdien gehikuntza %15,6 izan zen, 2021eko martxotik aurrera hasitako goranzko joera berretsiz.

Bilakaera nabarmena apartamentu turistikoetan

Gualdiak apartamentu turistikoetan
Urte bakoitzeko apirila. Milakoak




Iturria: Eustat.

Aurreko informazioaren osagarri, **apartamentu turistikoetan igarotako gualdiak %28,4 gehitu ziren apirilean EAEn.** Zehatz-mehatz, 54.794 gualdi jaso ziren hileko horretan, hau da, apiril bateko kopururik handiena datuak daudenetik, aurreko aldietako erregistroak nabarmen gaituz.



Industriako prezioak tasa negatibotan kokatu dira

Industriako prezioen indizea
Urte arteko aldakuntza tasa




Iturria: Eustat.

Prezioen beheranzko joerak bere horretan jarraitzen du eta apirilean industriako prezioen aldakuntza tasa **-%1,9ra jaitsi zen**. Hala, IPRIa balio negatiboetan dago 2021. urtearen hasieratik lehen aldiz, batez ere energiaren prezioen jaitsieraren (-%19,2) eta, neurri txikiagoan, kontsumoko ondasun iraunkorren (-%3,4) ondorioz.

Eraikuntzako kostuak %4,9 igo ziren

Eraikuntzaren kostuen indizea
Urte arteko aldakuntza tasa



Iturria: Eustat.

Eraikuntzaren kostuak **%4,9 igo ziren apirilean, aurreko urteko aldi beraren aldean**, nahiz eta moteltzeko joerarekin jarraitu zuten. Kostuen atalen artean, lehengaiak izan ziren gehien garestitu zirenak (5,7), eskulanaren igoera zertxobait txikiagoa (2,1) izan zen bitartean.